

Babeseko Ibilbide Orria – eLankidetzza
Giza Eskubideen pertsona, erakunde, komunitate eta sare
defendatzaileak
2020-2023

1. ARDATZA: EZAGUTZA ETA SINERGIAK SORTZEA AGENTEEN ARTEAN

		Ekintzak	2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
1.1 Lankidetzako eta giza eskubideetako agenteen arteko guneak eta kontaktuak ahalbidetzea azterketak, estrategiak eta esperientziak partekatzeko babes-arloan.	1.1.1 Babesari buruzko trukeko eta ikaskuntzako guneak antolatzea lankidetzako eta giza eskubideetako agenteen artean, besteak beste honako hauetarako: (i) testuinguru-azterketako, arriskuko eta babeseko erremintak identifikatzea; (ii) lurraldeen arteko eta eskualde-arloko estrategiak kudeatzea; (iii) hainbat testuingurutako azterketak eta esperientziak atxikitzea, eta (iv) praktika egokiak partekatzea.						Egindako bileren kopurua (Aurreikuspena: eLankidetzak deitutako bilera bat gutxienez urteko)
	1.1.2 Gutxienez kontaktua eta koordinazioa ahalbidetzeko guneak sustatzea: (i) eLankidetzak laguntzen dituen kolektibo eta esperientzien artean, eta (ii) babesaren arloan funtsezkoak diren askotariko agenteen artean.						Egindako bileren kopurua (Aurreikuspena: eLankidetzak deitutako bilera bat gutxienez urteko)
1.2 Prestakuntzak, gaikuntzak eta informazio esanguratsurako sarbideak ahalbidetzea lankidetzako eta giza eskubideetako agenteak babesteko arloan.	1.2.1 Prestakuntza ahalbidetzea lankidetzako agenteen babes-arloan (Euskadin eta lurraldeetan): (i) laguntzen diren ekimenen arloan; (ii) eLankidetzak bultzatuko gaikuntza bidez, eta (iii) eLankidetzak Afrikari eta babesari buruzko jardunaldi batzuk egitearen bidez (2022).						Ekimenetan barne hartutako babesari buruzko gaikuntza kopurua (Aurreikuspena: zehaztu gabea) eLankidetzak bultzatutako prestakuntza-saioen edota jardunaldien kopurua (Aurreikuspena: prestakuntza-saio bat urteko)
	1.2.2 Lankidetzako agenteen artean babes-arloko jardunbide egokiei buruzko funtsezko dokumentuak, artikuluak, ponentziak eta informazioa zabaltzea.						Partekatutako jardunbide egokiei buruzko dokumentu, artikulu eta ponentzien kopurua, eta informazio kantitatea (Aurreikuspena: dagokionean)

2. ARDATZA: BABES-ARLOKO EKIMENENTZAKO SOSTENGUA

Ekintzak		2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
2.1 Babesa ardatz duten ekimenak sostengatzea.	2.1.1 Informazio-orri bat lantzea lankidetzaren artean zabaltzeko, orri horretan eLankidetzak giza eskubidetako pertsona, komunitate eta sare defendatzaileak ardatz dituzten proiektutzat zer ulertzen duen bilduz.					Landutako informazio-orria Dokumentua ezagutzen duten agenteen kopurua (Aurreikuspena: gutxienez 50 agente)
	2.1.2 eLankidetzaren urteko funts banagarrien % 4 babesa ardatz duten ekimenetara bideratzea.					Babesari urtero emandako funtsen %-a (Aurreikuspena: gutxienez emandako funtsen % 4)
	2.1.3 eLankidetzaren zuzeneko dirulaguntzak zehaztea ekimen estrategikoak sostengatzeko babes-arloan eta mapaketan detektatutako absentziei erantzuna emateko.					Arloan emandako zuzeneko dirulaguntzen kopurua (Aurreikuspena: gutxienez urtean zuzeneko dirulaguntza bat)
	2.1.4 Deialdietan irizpide zehatzak ezartzea babesa ardatz duten proiektuak indartzeko.					Berrikusitako baremoak
2.2 Babes-ekintza espezifikoak sostengatzea babesa ardatz ez duten ekimenetan.	2.2.1 Deialdietan irizpide zehatzak ezartzea babesaren ikuspegia indartzeko ekimenetan eta babes-ekintza espezifikoak sustatzea.					Berrikusitako baremoak

3. ARDATZA: GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

		Ekintzak	2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
3.1 Kandidaturak hautatzeko prozesua garatzea. (eLankidetzak, parte-hartze puntuala)	3.1.1 Edizio bakoitzean deialdiaren irekiera zabaltea eta informazioguneak ahalbidetzea lankidetzako euskal agenteei						Deialdia zenbat agenterekin partekatzen den (Aurreikuspena: gutxienez urtean 100 agentek jasotzen dute deialdia) Egindako bileren kopurua (Aurreikuspena: eLankidetzakdeitutako informazio-saio bat urtean)
	3.1.2 Kandidaturak berrikustea eta hautatzea.						Parte hartzen den bileren kopurua (Aurreikuspena: Hautespenez Batzordearen bilera bat urtean)
3.2 Aldi baterako harrera-prozesua garatzea. (eLankidetzak, parte-hartze puntuala)	3.2.1. Aldi baterako harrera-prozesua laguntzea.						Sostengatutako programa-edizioen kopurua (Aurreikuspena: urtekoa) Egindako laguntza-ekintzen kopurua (Aurreikuspena: defendatzaileen profilen arabera, ekintza bat urtean gutxienez)
3.3 Itzulerarako laguntza-prozesua garatzea. (eLankidetzak, parte-hartze puntuala)	3.3.1 Itzulerarako laguntza-misioetan parte hartzea.						Parte hartzen den misioen kopurua (Aurreikuspena: urte parte-hartzea)
	3.3.2 Defendatzaileen eta haien kolektiboen arrisku-eta babes-egoerari jarraipena ematea.						Egindako jarraipen-ekintzen kopurua. (Aurreikuspena: dagokionaren arabera)


<p>3.4 Giza eskubideen defendatzaileak babesteko euskal programaren harreman-sarea sendotzea</p> <p>(eLankidetzaren parte-hartze puntuala)</p>	<p>3.4.1 Aldi baterako babesteko euskal programak herriko, eskualdeko eta nazioarteko agenteekin dituen harremanak sendotzen laguntzea, babes-sare eta babes-aliantzak indartzearen.</p>					<p>Sostengua emandako urteen kopurua</p> <p>(Aurreikuspena: urtekoa)</p> <p>Egindako ekintzen kopurua</p> <p>(Aurreikuspena: defendatzaileen profilen eta testuinguruaren aukeren arabera, ekintza bat urtean gutxienez)</p>
<p>Zeharkako ekintza</p>	<p>eLankidetzaren programan duen rola berriz pentsatzea eta zehaztea, Giza Eskubide, Biktimen eta Aniztasun Zuzendaritzarekin eta CEAR-Euskadi elkartearekin elkarrekin elkarrekin.</p>					<p>Egindako gogoeta-prozesua (2020ko azken hiruhilekoa eta 2021eko lehen hiruhilekoa)</p>



4. ARDATZA: BABESERAKO ETA INTZIDENTZIA POLITIKORAKO KOMUNIKAZIOA

	Ekintzak	2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
<p>4.1 Komunikazio-protokolo bat lantzea komunikaziorako eta intzidentzia politikorako.</p> <p>*Giza eskubideen pertsona, erakunde, komunitate eta sare defendatzaileei buruz narratiba erkide bat egiteari ekitea da komunikazio-protokoloaren helburua, giza eskubideen alde haiek egiten duten lan kolektiboa publikoki legitimatzeko, eta arrisku-egoerak sortzen dituzten egoera eta kausa estrukturalak kontestualizatzeko helburuarekin. Horregatik, bi ekintza-ildorekin planteatzen da protokoloa: (i) prebentzio-klabeen, legitimazio-ekintzak (4.2 puntuarekin zerikusia), eta (ii) erreakzio-klabeen, arrisku, mehatxu eta erasoak direla-eta egiten diren ekintzak (4.3 puntuarekin zerikusia).</p>	<p>4.1.1 Komunikazio-protokoloarekiko espektatibak partekatzea (eLankidetzak, Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritza).</p>					Egindako saioa
	<p>4.1.2 Azken urteetan giza eskubideen pertsona, erakunde, komunitate eta sare defendatzaileen arrisku-egoerak direla-eta Eusko Jaurlaritzak (eLankidetzak sustatuta) egin dituen erantzunak sistematizatzea, baita egindako legitimizazioko edo sentsibilizazioko zuzeneko ekintzak ere.</p>					Sistematizazio osatua duen dokumentua
	<p>4.1.3 Komunikazio-protokoloa definitzea.</p>					Definitutako, kontrastatutako eta itxitako protokoloa
	<p>4.1.4 Dokumentu publikoa Eusko Jaurlaritzari eskatu ahalko lizkioketen agenteen artean zabaltzea.</p>					Dokumentua ezagutzen duten agenteen kopurua (Aurreikuspena: gutxienez 50 agente)
<p>4.2 Giza eskubideen pertsona, erakunde, komunitatea eta sare defendatzaileen legitimazio-ekintzak garatzea.</p>	<p>4.2.1 Ekintza espezifikoak ezartzea komunikazio-arloan (deklarazioak, iritzi-artikuluak, sare sozialetako bizitza-istorioak, eta abar).</p>					Ekintza kopurua (Aurreikuspena: gutxienez urtean ekintza bat)
<p>4.3 Erreakzio-ekintzak garatzea giza eskubideen pertsona, erakunde, komunitate eta sare defendatzaileek izan ditzaketen arrisku, mehatxu eta erasoak direla eta.</p>	<p>4.3.1 Giza eskubideen defendatzaileak eta haien kolektiboak sostengatzeko komunikatu publikoak ematea.</p>					Dagokionaren arabera
	<p>4.3.2 Aldebiko ekintzak egitea giza eskubideak babesteko ardura duten</p>					Dagokionaren arabera

	erakunde instituzioekin.	eta					
--	-----------------------------	-----	--	--	--	--	--



5. ARDATZA: ELANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDE, BIKTIMA ETA ANIZTASUN ZUZENDARITZA BARRUTIK SENDOTZEA

	Ekintzak	2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
5.1 Garatutako eta sostengatutako (eLankidetzaren ekinez) babes-ekimen eta babes-ekintzen mapaketa egitea, eta ondorioak ateratzea.	5.1.1 eLankidetzaren irizpideak eta eremuak definitzea.					Excel irizpideekin eta definitutako eremuak
	5.1.2 eLankidetzaren mapaketa (urtekoa) egitea ezarritako irizpideen arabera eta emaitzak, ondorioak eta gomendioak biltzen dituen txosten bat biltzea.					Urte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan osatutako mapaketa (Excel) Urte bakoitzeko lehenengo seiuhilekoan landutako txostena
	5.1.3 Mapaketaren txostena partekatzea.					Egindako bileren kopurua (Aurreikuspena: urtean gutxienez bi bilera)
5.2 Babes-arloan ezagutzak eta gaitasunak (eLankidetzarenak) sendotzea.	5.2.1 Babesari atxikitako gaiak aztertzen dituzten prestakuntzako edota dibulgazioko guneetan parte hartzea.					eLankidetzak parte hartzen duen prestakuntzaguneen kopurua (Aurreikuspena: gutxienez urtean bi saio) eLankidetzak bere langileentzako antolatutako prestakuntza-saioen kopurua (Aurreikuspena: gutxienez aldi bat)
	5.2.2 Babes-premiei eta babes-mekanismoei buruzko galdera eLankidetzak parte hartzen duen bileretan barne hartzea.					Landutako galderen oinarri-gidoia (2020) Premien eta mekanismoen erantzunei buruz egindako sistematizazioa
	5.2.3 Giza eskubideen ikuspegia berrikustea eta sakontzea. (Oharra: babes ardatz duen ibilbide-orriaz haratago doa ekintza hau, baina ibilbide orriarekin zerikusia duelako hartzen da barnean)					Landutako berrikuste- eta sakontze-prozesuaren sintesi-dokumentua

5.3 Sareak eta harremanak (eLankidetzarenak) sendotzea babes-klabea.	5.3.1 Funtsezko agenteak eta artikulazioguneak identifikatzea giza baliabideen pertsona, komunitate eta sare defendatzaileak babestearen arloan eta norekin izan nahi ditugun harremanak eta zertarako definitzea.					Landutako sintesi-dokumentua
	5.3.2 Harremanak zabaltea eta sendotzea giza eskubideen agenteekin eta erakunde parekideekin, aurreko azterketari jarraikiz.					Egindako bileren kopurua (Aurreikuspena: gutxienez hiru aldian)



6. ARDATZA: IBILBIDE-ORRIAREN ZABALKUNDEA ETA JARRAIPENA

		2020	2021	2022	2023	Adierazleak eta helburuak
6.1. Ibilbide-orria zabaltzea	6.1.1 Ibilbide-orria lankidetzako eta giza eskubideetako agenteekin zabaltzea.					<p>Bilera kopurua</p> <p>(Aurreikuspena: gutxienez aldiari bi bilera)</p> <p>Ibilbide-orria ezagutzen duten pertsonen eta agenteen kopurua</p> <p>(Aurreikuspena: gutxienez 50 pertsona / agente)</p>
	6.1.2 Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana sendotzea giza eskubideen pertsona, sare eta komunitate defendatzaileak babestearen ikuspuntutik, ibilbide-orria eta beraren ekintzak zabaltzearen bidez.					<p>Aurkezpen-ekintzen kopurua / ibilbide-orriaren atxikipena beste ekimen batzuekin / Eusko Jaurlaritzako sailak</p> <p>(Aurreikuspena: gutxienez hiru ekintza aldiari)</p>
6.2 Ibilbide-orriaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.	6.2.1 Ibilbide-orriaren jarraipena egitea: adierazleak / helmugak betetzea eta kronograma.					Egindako urteko jarraipen-txostena
	6.2.2 IV. Gida Planean bildutako adierazleen jarraipena egitea, babes-arloan.					Egindako urteko jarraipen-txostena
	6.2.3 eLankidetzaren eta Giza Eskubideen, Biktimen eta Aniztasunaren arteko urteko bilera egitea (i) aurreko aldiari zer egin dugun, (ii) hurrengo aldirako lehentasunak eta (iii) mapaketak partekatzeko.					<p>Egindako bileren kopurua</p> <p>(Aurreikuspena: bilera bat gutxienez urteko)</p>